

# Domekaren bizikleta gorria



Gaur, lanetik etortzean, Aitak erran dit :

– Domeka! Gaur ere bizikleta kanpoan ahantzi dun. Badakin aterpean sartu behar dunala!

– Bai, Aita, banoazu.

5 Ene bizikleta asko maite dut : gorria da eta nik nahi dudana egiten du. Ongi jostatzen naiz.

Kanpora ateratzen naiz bizikletaren sartzeko eta zer gertatzen da? Ene bizikleta gorria... xutitzen da eta eskapatzen ; ihes egiten du!

– Nora hoa? Nora hoa?

10 – Agur, Domeka! Banoa, banoa; mundu zabala ezagutu nahi dut. Aitari erraiten diot:

– Aita! Aita! Ene bizikleta joana da. Orain karrikaren buruan dago. Ez dut gehiago ikusten.

Aita jin da eta biak haren gibeletik abiatu gara lasterka.

15 – Itzul etxera, berriz ere ongi jostatuko gara!

Baina bizikletak bere bidea segitzen du.





– Domeka, zer gertatu da zuen artean? Samurtu zarete? Zer egin dion?

– Ez, Aita, ez. Nik deus ez diot egin!

Domeka triste-triste zegoen.

– Ez egin negarrik, Domeka! Orain ilun dun kanpoan eta ez dinagu harrapatuko. Baina bihar, larunbata izanki eta, eguna libro izanen dinat eta orduan biek bilatuko dinagu.

Gau guzian ez dut **lo mikorik egin** : pentsa... ene bizikleta kanpoan, ilun beltzean, bakarrik! Bai, badakit baduela argi ttipi bat baina ez du biziki argitzen. Zernahi gertatzen ahal zaio : kamioi handi batek lehertu, zuhaitz bat jo edo erreka batera erori...

**Goiztiria**, azkenean! Tirrintak jo du Aitaren gelan.

– Domeka! Jaikitzen haiz? Askaldu eta, hire bizikletaren bila joanen gaitun.

Aitak autoa pizten du eta emeki-emeki abiatzen gara.

– Non ote da ene bizikleta?

– Hemen ez! Hor ere ez.

Bazterrak ongi ikertzen ditugu. Etxe baten aitzinean, emazte xahar bat baratzean dago.

– Egun on, Anderea! Bizikleta gorririk ez duzu ikusi hemendik iragaiten?

– Bai, bai... atzo ikusi dut. Ero bat bezala pasatu da "trin, triiin" eginez.

Urrunago, pentze batean, Aitak, gizon bat ikusten du.

– Heup! Egun on! Bizikleta gorririk ez duzu ikusi, **aments**?

Traktorea gelditzen du.

– Bai, bizikleta gorri bat ikusi dut. Zuhaitz horren ondoan zegoen.


Zer gertatzen zitzaion galdegin diot.

Nekatua zela eta gainera errota

**lo mikorik egin** : lorik batere egin.

**Goiztiria** : egunaren lehen orduak, goizean goizik.

**aments** : bederen, menturaz...





55 hertua zuela eta katea oliorik gabe ihardetsi dit.

Orduan bizikleta etxera eraman dut; errota hantu diot, kateari olioa eman... baina bizikleta airez-aire joan da batere eskertu gabe.

Berriz ere autoan abiatzen gara Aita eta biak. Orain, oihanean  
60 sartzen gara. Gure inguruan etxerik ez da ageri. Zuhaitzak eta zuhaitzak bakarrik.

– Aita! Aita! Geldi zaitetz! Begira han... erreka bazterrean. Argi ttipi bat ikusten dut!

Aitak autoa gelditzen du.

65 Polliki-polliki, erreka hurbiltzen gara. Ene bizikleta gorria ikusten dugu hor, belar artean, eroria.

– Ai! Ai! Min dut! – dio bizikleta gaixoak.

– Gaixoa! Katea hautsia du, gidoia makurtua, pedalak ere hautsiak!

70 – Egon goxoan, Domeka! Hire bizikleta antolatuko dinagu – erantzuten du aitak.

Aitak bizikleta hartzen du eta autoan sartzen. Baina bizikleta negarrez ari da.

– Zergatik joan hintzen atzo? Domekarekin haserretu zineten

75 ala...? Zer gertatu zen?

– Ez, ez, ez gara kexatu. Baina Domeka eskolan delarik, biziki enoatzen naiz etxean, bakar-bakarrik eta gainera, zenbait aldiz, gau guzia kanpoan iragan behar dut

80 xoriburu horrek ahantzirik!

Domekak gogoetak egin zituen.

– Ez haut gehiago ahantziko!

Ibilaldi ederrak eginen ditiagu eta mundu zabala elkarrekin

85 bisitatuko.


"Trin ! Triiin ! Triiiiiin !"

Bizikleta gorria, gogoa

alai, Domekaren etxean

gelditu zen.

Francas argitaletxearen  
*Jeunes Années* aldizkaritik  
egokitua.





## ① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nolakoa da Domekaren bizikleta?
- Zer gertatu da egun batez?
- Zergatik triste da Domeka?
- Zer egin dute Aitarekin?
- Bizikleta non aurkitzen dute?
- Zer hitzeman dio Domekak?
- Nork kontatzen du ipuin hau?
- Irakurgai honentzat beste bi izenburu proposatzen dizkizugu:  
"Bizikleta ihesi" eta "Domekaren aita". Zein bazter zenezake?

## ② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Lehen lerroari begiratu eta, beste lerroak osa itzazu.

<i>Oihanzainak</i>	oihana	zaintzen du.
.....	eria	zaintzen du.
.....	atea	zaintzen du.
.....	etxea	zaintzen du.
.....	dirua	zaintzen du.
.....	herria	zaintzen du.
.....	ardiak	zaintzen ditu.

- Taula honetako hitz bakoitzak bere kontrakoa badu. Denak berridatz pareak emanez

